



Kazetarien Euskal Elkargoak eta Euskal Kazetarien Elkarteak Oñatin izandako kazetarienganako erasoak deitoratzen dituzte

KEE-CVP-k eta EKE-AVP-k asteburu honetan Oñatin ETako preso ohi baten harreran zenbait kazetariak jasandako irainak eta bultzadak gaitzesten dituzte.

EAEko kazetaritza arloko bi erakunde profesional nagusiek adierazpen eta informazio askatasunaren erasoen aurka agertzen dira eta hiritargoari informatzeko lana burutzen duten profesionalenganako errespeturik handiena eskatzen diote.

Izan ere, informazio eskubidea herritarren oinarrizko eskubidea da eta Espainiar Konstituzioan bertan jasota dago, eta modu berean jasota dago libreki informatzeko eskubidea hedabideei dagokionez; horra hor kazetari profesionalen garrantzia eta beharra.

KEEk eta EAEK babesa luzatu nahi diete kaltetuak izan diren komunikabide eta profesionalei, eta aldi berean gogoratzen dute gizartea libreki informatzeko eta iritzi publikoa eraikitzen laguntzeko informazioa zabaltzea oinarrizko eskubide demokratikoa dela.